



# Zer igortzen dugu airera?

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.

## HELBURUAK

- Airera botatzen ditugun zenbait substantzia identifikatzea.
- Jasotako informazioa bildu eta ordenatzea.


## MATERIALAK

- ◆ Plastiko itsasgarritzko zerrendak (aerofix, cello...).
- ◆ Paper milimetratua.
- ◆ Lupa.


**EKINTZA HONETAN**, airearen partikula solidoak toki desberdinetan aztertuko ditugu, adibidez:

- Eskolako aparkalekuan (edo zure etxeko garajea).
- Eskolako patioan (edo trafikorik gabeko toki batean).
- Eskolako gelako leiho batean (edo tximinia batetik hurbil dagoen lekuren batean).


## Eman beharreko urratsak



**1.** Moztu plastiko itsasgarritzko zerrenda batzuk (3x6 cm).



**2.** Kendu babes-papera eta ipini alde itsasgarria aztertu nahi ditugun toki azalera desberdinen gainean, eskuaz presioa eginez.



**3.** Askatu eta partikula txikiak itsatsirik geratu direla ikusiko duzu. Itsatsi zerrenda paper milimetratuaren gainean.



**4.** Luparen laguntzaz, mota eta tamaina diferentetako partikulak ikusi eta azter ditzakegu.

Emaitzak ondorengo taulan bil daitezke:

	Lekua	Partikula motak: kea, hautsa...	Tamaina: milimetrotan	Kopurua: gutxi, asko...
1. lagina				
2. lagina				
3. lagina				

Lortutako emaitzei begira:

- Zeintzuk dira airera botatzen ditugun partikula solidoak?
- Non daude ugarienak?
- Begi bistakoak al dira?